

# UEMAren ZERBITZUEN KATALOGOa



UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA

## AURKIBIDEA:

Sarrera	3
1. Udalerria euskalduntzeari buruzko zerbitzuak	4
1.1. Merkataritza eta ostalaritza	5
1.2. Transmisioa	6
1.3. Etorri berriak	7
1.4. Euskalduntze alfabetatzea	8
1.5. Errenta aitordena	9
1.6. Abizenak euskaldundu	10
1.7. Osasungintza eta epaitegiak	11
1.8. Autoeskolen lanketa	12
1.9. Diru laguntzak	13
2. Hitzunen aktibazioari begirako zerbitzuak	
2.1. Formazio eskaintza	14
2.1.1. Erakusketa ibiltaria	15
2.1.2. Erakusketa + bisitailerra	16
2.1.3. Arnasguneei buruzko hitzaldia	17
2.1.4. Arnasguneen tailerra (saio batekoa)	18
2.1.5. Arnasguneen tailerra (bi saio)	19
2.1.6. Motibazio tailerra	20
2.1.7. Haur eta helduen tailerra	22
2.2. Hezkuntza proiektua	24
2.2.1. Haur Hezkuntza	25
2.2.2. Lehen Hezkuntza	29
2.2.3. DBH3 eta DBH4	30
2.2.4. Batxilergoa	31
2.3. Eragileen lanketa	32
3. Udalerriaren zaintzari begirako zerbitzuak	34
3.1. Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa	35
Harremanetarako	36

# SARRERA

Administrazioa euskalduntzeko zerbitzuez gain, bertako kide diren udalerrri euskaldunetako udalei, merkatariei eta herritarrei zuzendutako hainbat egitasmo ere bultzatzen ditu UEMAk, eta horiek biltzen ditu katalogo honek.

Berariaz, udalak euskalduntzeko zerbitzuak ez dira hemen ageri. Udalerrriak euskalduntzeko zerbitzuak, herritarren sentsibilizazioan eta kontzientziazioan eragin asmo dutenak, eta udalerrri euskaldunen zaintzari dagozkionak baizik.

Izan ere, azken urteotan, euskararen bilakaerak behera egin du udalerririk euskaldunenetan ere, eta egoera iraultzeko giltzarriak dira hemen ageri diren hainbat egitasmo. Azken urteotan abiarazitakoen artean, hartzaileen kopuruari dagokionez, hezkuntza proiektua da nabarmenena, baina tailer ezberdinak, erakusketa eta hitzaldiak ere aurkituko dituzue katalogo honetan.

Azkenik, udalerrri euskaldunen zaintzarekin lotuta, eragin linguistikoaren ebaluazioa ere nabarmendu nahi dugu berrikuntza gisa, hirigintzak euskararen bilakaeran duen eragina ezagututa, udalentsat lanabes garrantzitsua baita.

# **1. UDALERRIA eUSKALDUNTZEARI BEGIRAKO ZERBITZUAK**





Udalerrri berri bat UEMAn sartzen denean, merkataritza bira egiten da, eta herriko dendari eta ostalariei eskaintzen zaie hizkuntza paisaia euskalduntzeko aukera. Horretarako, ordutegi ereduak, menuen itzulpenak, informazio-txartelak, fakturak eta abar eskaintzen zaizkie. Horrez gain, UEMak txosten bat egiten du udalerriko merkataritza zerbitzuen datuekin:

- Karteltxoak.
- Errotuluak.
- Ordainagiri / faktura takoak.
- Arlokako hiztegiak.
- Itzulpen-lan laburrak (menuak, karteltxoak...) eta euskara zuzenketak.
- Merkealdietarako materiala (merkealdia tirak eta orain/lehen txarteltxoak).

Urtean bi kanpaina egiten dira:

### 1.1. MERKATARITZA eta OSTALARITZA

**ZERBITZUA:** MERKATARIK eta OSTALARIK OHIKOAK DITUZTEN BITARTEKOAK euskaraz eskaintzea.

**HARTZAILEAK:** MERKATARIK eta OSTALARIK. **HELBURUA:** Hizkuntza paisaia euskalduntzea.

**BITARTEKOAK:** KARTELAK, ERROTULUAK, ORDAINAGIRIAK eta FAKTURAK, ARLOKAKO HIZTEGIAK, ITZULPEN LABURRAK, MERKEALDIETARAKO MATERIALA, eta ABAR.

- Merkealdi kanpaina, ekainean. Merkealdia tirak eta orain/lehen txarteltxoak banatzen zaizkie merkatariei.
- Kanpaina orokorra. Abenduaren amaieran egiten da, eta zerbitzua gogorarazteko gutunak bidaltzen zaizkie. Horrekin batera jasotzen dute egutegi bat, zerbitzua erabiltzeko helbide eta telefonoekin.
- Udalerriren batean saltoki berri bat irekitzen denean, zerbitzua zuzenean aurkezteko bisitak egiten dira.



## 1.2. TRANSMISIOA

**ZERBITZUA:** GURASOAK KONTZIENTZIATZEKO GUTUNA.

**HARTZAILEAK:** HAUR JAIO BERRIEN GURASOAK.

**HELBURUA:** GURASOEI HIZKUNTZAREN TRANSMISIOAREN GARRANTZIA IKUSARAZTEA.

**BITARTEKOAK:** GUTUNA ETA AUTORAKO PEGATINA.

Guraso eta seme-alaben arteko transmisioaren garrantzia ikusarazteko, jaio berriaren gurasoei gutun bat bidaltzen zaie, eta pegatina bat ematen zaie autorako: Kontuz, haurrak!

### 1.3. ETORRI BERRIAK

**ZERBITZUA: ETORRI BERRIAK EUSKARARA ERAKARTZEKO LANKETA.**

**HARTZAILEAK: ETORRI BERRIAK.**

**HELBURUA: ETORRI BERRIAK EUSKARARA ERAKARTzea.**

**BITARTEKOAK: TRIPTIKOAK ETA ETORRI BERRIENTZAKO HIZTEGIAK.**



Euskal Herritik kanpoko lekuetatik etorritako pertsonentzat triptiko bat dugu, tokiko hizkuntza-aren, euskararen, inguruko informazioarekin. Horrez gain, udalerraren inguruko informazioarekin eta tokiko zerbitzuen datuekin banatzen zaie eskuorri bat. Sei hizkuntzatan dago: gaztelaniaz, arabieraz, frantsesez, ingelesez, portugesez eta katalanez.

Honako mezua eta informazioa jasotzen dute:

- Euskara Euskal Herriko hizkuntza da.
- Gure herria euskalduna da: euskara da eguneroko hizkuntza.
- Herriko zerbitzu publikoen eta beste hainbat erakunderen informazioa.

Diptikoez gain, oinarrizko hiztegitxoak daude hamalau hizkuntzatan. Herritar berriak etorri ahala diptiko eta hiztegitxoak banatzen dira. Material hori guztia doan eskaintzen du UEMAK. Horrez gain, bai erakundeekin, bai eragileekin, hainbat lanketa egin izan ditu modu orokorrean: GFako inmigrazio sailarekin elkarlanean aritu da azken bi agintalditan, Topagunearekin Auzoko egitasmoa landu zuen, eta UEMAKo udaletan pilotatu, besteak beste.



#### **1.4. EUSKALDUNTZE ALFABETATZEA**

**ZERBITZUA: EUSKALDUNTZE ALFABETATZE KANPAINA BIDERATZEA.**  
**HARTZAILEAK: ERDALDUNAK ETA EUSKARAZ ALFABETATU NAHI DUTENAK.**

**HELBURUA: HERRITARRAK EUSKARA IKASTERA EDO ALFABETATZERA ANIMATZEA, ETA TALDEAK HERRIAN BERTAN SORTZEA, EUSKALTEGIRIK EGON EZ ARREN.**

**BITARTEKOAK: GUTUNA ETA KARTELAK.**

Euskaltegirik ez dagoen udalerrietan, herrian bertan euskara ikastaroak sortzeko helburuarekin, euskaltegiekin harremanetan jarri eta kanpaina zehatzak koordinatzen eta bultzatzen ditu UEMAK.

Udaletako diru-laguntzak zehazteko laguntza eskaintzen du.





### 1.5. ERRENTA AITORPENA

**ZERBITZUA:** ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ EGITEKO INFORMAZIOA, LAGUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO KANPAINA

**HARTZAILEAK:** UDALERRI EUSKALDUNETAKO HERRITARRAK.

**HELBURUA:** HERRITARREK ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ EGITEA ETA ADMINISTRAZIOA EUSKALDUNTZEA.

**BITARTEKOAK:** KARTELAK, ESKU-ORRIAK, HEDABIDEAK ETA SARE BIDEAK.

Urtero egiten da kanpaina UEMaren bidez. Herritarrek errenta aitortpena euskaraz egin dezaten animatzea izaten da helburua. Kanpainen balorazioak ere UEMak egiten ditu, erakundeekin kopuruak kontrastatuta eta informazio hori guztia udaletara zabalduta.



## 1.6. ABIZENAK EUSKALDUNDU

**ZERBITZUA:** **ABIZENAK EUSKALDUNTZEKO KANPAINA.**

**HARTZAILEAK:** **EUSKAL ABIZENAK ERDAL GRAFIAZ IDATZITA DITUZTEN HERRITARRAK.**

**HELBURUA:** **EUSKAL ABIZENAK EUSKAL GRAFIAZ IDATZITA AGERTzea.**

**BITARTEKOAK:** **ESKUORRIAK ETA KARTELAK.**

Udalen batek kanpaina egin nahi badu, UEMATik kanpainarako euskarriak helarazten zaizkio eta kanpaina diseinua prestatu. Horretarako, kartelak, eskuorriak eta beharrezko materiala UEMAK jarri ohi du.



### 1.7. OSASUN-ETXEETAN ETA EPAITEGIETAN EUSKARAZ

**ZERBITZUA:** OSASUN-ETXEAK ETA EPAITEGIAK EUSKALDUNTZEKO LANKETA.

**HARTZAILEAK:** HERRITARRAK BATETIK, ETA OSASUN-ETXEETAKO ETA EPAITEGIE TARAKO ARDURADUNAK ETA LANGILEAK BESTETIK.

**HELBURUA:** ADMINISTRAZIOA EUSKALDUNTZEA.

**BITARTEKOAK:** DATUAK BILTZEKO GALDETEGIAK, KANPAINAREN ESQUORRIAK ETA KARTELAK.

Tokian tokiko jarraipena, eta UEMAko udalerrien inguruko diagnostikoak. Zerbitzu hau orokorragoa da, mankomunitate gisa egiten da. Datu bilketak egiten dira. Horrez gain, unean uneko kexak bideratzen ditugu.

Osasungintzaren kasuan, Osakidetza 2013an abiatutako V. Euskararen erabilera planari jarraipen berezia egiten dio, helburuak betetzen ari direla ziurtatzeko. Osakidetzaren jarraipen batzordeetan parte hartzen du. Horrez gain, osasun-zentroekin bilerak egiten ditu mediku zein pediatra erdaldunak dau den herrietan eta egoera konpontzeko emateko bideak adosten ditu.

Unean-unean kanpaina berezituak egiten ditu zerbitzuak euskaraz ere izan daitezen eskatzeko. Adibidez, UEMAko herrietan egingo diren ordezkapenetan mediku euskaldunak kontrata ditzatela eskatzeko lanketa egiten du udan.



### **1.8. AUTOESKOLEN LANKETA**

**ZERBITZUA: AUTOESKOLAK EUSKALDUNTZEKO LANKETA.**

**HARTZAILEAK: HERRITARRAK BATETIK, ETA AUTOESKOLETAKO ARDURADUNAK ETA LANGILEAK BESTETIK.**

**HELBURUA: AUTOESKOLAK EUSKALDUNTZEA.**

**BITARTEKOAK: DATUAK BILTZEKO GALDETEGIA.**

2017an lehen aldiz egingo du UEMAk autoeskolen lanketa bere udalerrietan. Ikusita ia herritar guztiek erabiltzen duten zerbitzua dela, datu bilketa egingo du, gero, lanketa proposatzeko.



### **1.9. DIRU LAGUNTZAK**

**ZERBITZUA: DIRU LAGUNTZA DEIALDIETARA AURKEZTEKO AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA.**

**HARTZAILEAK: UDALAK.**

**HELBURUA: EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO BATEKO ETA BESTEKO DIRU LAGUNTZEN BERRI IZATEA, ESKURATU AHAL IZATEKO.**

**BITARTEKOAK: EGITASMOEN TXOSTENAK.**

Udalerrri txikienei ESEP (euskara sustatzeko ekintza planak) diseinatzeko UEMAK, eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzak zein Nafarroako Gobernuaren Euskarabideak ateratzen dituen diru-laguntza deialdietan tramitazioa egin ere bai.

Ordezkeri bakarreko udalerrietan diseinuaz arduratzen da, eta laguntza eskaintzen du bi ordezkari dituztenetan. Gainerakoetara, berriz, UEMAKo egitasmoen txostenak bideratzen dira.

## 2. HIZTUNEN AKTIBAZIOARI BEGIRAKO ZERBITZUAK

### 2.1. FORMAZIO ESKAINTZA:

#### TAILERRAK, ERAKUSKETA, BISITA GIDATUAK...

Udalerrri euskaldunetan badago batean eta bestean errepikatzen ari den kezka, nahiz eta gaur gaurkoz joera hori nagusi ez den: kalean eta etxean gero eta gehiago entzuten dela gaztelania. Ele bietako jardunek espazioa irabazi dute euskarazko jardunen gainean eta joera hori sumatzen ari dira, besteak beste, Mallabian, Beran, Alegian edota Aramaion ere. Bada, kezka hortaz ohartuta, UEMAk formazio eskaintza zabala sortu du herritarrak sentsibilizatu eta ahalduntzeko.

Udalerrri euskaldunetan, maiz, herritarrak ez dira era kontzientean ohartzen hizkuntzaren biziraupenean izan duten, duten, eta izango duten ardura zein balio itzelaz. Euskal hiztun komunitateari esker iritsi gara, hein handi batean, gaur egungo egoeraraino. Hortaz, ezinbestekoa da komunitate horren JABEKUNTZA prozesuan eragitea. Herritar horiek jakin behar dute haien hizkuntza jarrerak izugarri-zko eragina izan dutela, dutela, eta izango dutela euskararen geroan.

Kezka horiei erantzuteko asmoz, orain arte baino eskaintza zabalagoarekin gatoz, ahalik eta herritar gehienengana iristea baita asmoa. Horretarako, askotariko beharrianetara egokituko diren formatuak prestatu ditugu, udalerrri edo interes-talde desberdinei erantzun asmoz.

Honako saioak aurkituko dituzue atal honetan: arnaguneen tailer edota hitzaldiak, erakusketa ibiltaria, bisita tailerrak, motibazio tailerra eta haureta helduentzako tailerra. Ondoren aurkituko duzu prestatu ditugun formatu bakoitzaren helburu, hartzailer eta metodologiari buruzko informazio xeheagoa. Dena den, eskaintza hau moldagarria da tokian tokiko beharretara eta interes-taldeek bestelako behar zehatzen bat aurkeztuko balute egokituko genuke.

### 2.1.1. ERAKUSKETA IBILTARIA

**ZERBITZUA:** EUSKARAREN ARNASGUNEELI BURUZKO ERAKUSKETA.

**HARTZAILEAK:** ARNASGUNEETAKO HERRITAR GUZTIAK.

**HELBURUA:** ARNASGUNEELI DUTEN GARRANTZIA ETA AZKEN HIRU HAMARKADETAN IZAN DUTEN BILAKAERA IKUSARAZTEA ETA AURRERA BEGIRAKO GAKOAK EZAGUTzea, MODU DAKTIKO BATEAN.

**BITARTEKOAK:** 13 paneleko erakusketa.



UEMAk herritarrengan eragiteko hainbat baliabide sortu ditu azken urteetan eta sortu berri duen erakusketa hau ere komunikazio estrategia horren baitan kokatzen da. UEMAREN mezua herritarrengan zabaltzea da helburua eta ahalegin berezia egin da mezu ulertterazak sortzen.

Erakusketaren mamia bi iturri nagusitatik jasotakoa da. UEMAK bi ikerketa egin zituen 2014an eta 2015ean ekin dio gizarteratzeari. Lehenbizikoa, Soziolinguistika Klusterrak egindakoa da eta Udalerrri euskaldunen bilakaera soziolinguistikoa aztertzen du. Bigarrena, berriz, Gaindegiak landutakoa da eta udalerrri euskaldunen ezaugarri sozioekonomikoak biltzen ditu. Bi txosten mardul horien mamia modu sintetikoan eta praktikoan azaltzen du erakusketak, grafiko erakargarri hornituta. Bestalde, aipatutako iturriez gain, beste hiru atalekin osatu da erakusketa. Lehenbizi, euskararen arnaguneak zer diren eta nolako ezaugarriak azaltzea garrantzizkotzat jo da. Bigarrenik, kultur ereduaren bilakaerak herritarrengan izan duen eraginari ere arreta berezia jarri zaio (internet, globalizazioa...). Azkenik, herritarren aktibazioari begirako mezu indartsu eta positiboa zabaldu nahi izan da erakusketa amaieran.

#### Tamaina eta moldagarritasuna:

Erakusketa 13 panelek osatzen dute eta, horiez gain, erakusketaren aurkezpen lana egiten duen beste bat ere badago. Informazio panel normalak roll-up formatukoak dira, alegia, pertsiana bat balitz bezala biltzen diren horietakoak. Oso toki gutxi behar dute bilduta daudenean, baina zabaldukoan tamaina ikusgarria dute: metro bat zabal eta bi luze (1 x 2). Herri txikietan tamaina egokiko areto handirik ez baldin badago, formatu txikiko erakusketa muntatzeko aukera ematen du erakusketak. Hau da, panel guztiak eraman beharrean, 6-7 eramango genituzke, informaziorik garrantzitsuena eta mezuaren muina biltzen dutenak.

Esan bezala, panel berezi bat egongo da, aldi berean erakusketaren aurkezpen funtzioa egingo duena eta ikuslearekin interakzioa sortu nahi duena. Panelak zulo bat izango du erdian, eta ikusleek paperezko hegazkinetan euren ideiak eta hausnarketak idazteko aukera izango dute, ondoren hegazkinak hegan jartzeko eta zulotik sartzeko.

**2.1.2. ERAKUSKETA + BISITAILERRA:**  
**ZERBITZUA: euskararen arnaguneei**  
**BURUZKO ERAKUSKETA + HORREN INGURUKO**  
**BISITA GIDATUA ETA TAILERRA.**  
**HARTZAILEAK: DBHko eta BATXILERGOKO**  
**IKASLEAK.**  
**HELBURUA: arnaguneek duten GARRANTZIA**  
**ETA AZKEN HIRU HAMARKADETAN IZAN DUTEN**  
**BILAKAERA IKUSARAZTEA ETA AURRERA**  
**BEGIRAKO GAKOAK EZAGUTZEA,**  
**MODU DIDAKTIKO BATEAN.**  
**BITARTEKOAK: 13 paneleko erakusketa.**



### Metodologia:

Erakusketari zuku handiagoa atera asmoz, eta herritar gehiagorengana iritsi asmoz, herriko ikastetxeei bisita gidatuak egiteko aukera eskaini zaie.

Erakusketak jasotzen dituen edukiak bere horretan azaldu beharrean, 55 minutuko iraupena duen saio didaktiko bat sortu da.

Erakusketa modu aktiboan barneratzea da helburua, eta horretarako lehenbizi azalpen teoriko laburra emango zaie. Azalpen labur horretan, UEMA zer den azalduko zaie eta ondoren erakusketaren nondik norakoen berri emango zaie. Arnaguneak zer diren eta zein garrantzia duten ezagutzeko tartea ere eskainiko da. Behin azalpenak emanda, taldeka jarriko dira eta lau multzo osatuta, talde bakoitzak fitxa bat bete beharko du. Jarraian, taldeka bildutako informazioa gainontzeko guztiekin partekatuko dute plenarioan. Eta amaitzeko, paper zurian euren gogoeta laburrak idatziko dituzte, paper horiekin hegazkinak egin eta horretarako prestatutako paneleko zuloatik sartzen saiatuko dira.

### Denboralizazioa:

- |  |           |
|--|-----------|
| • Aurkezpena: UEMA + erakusketa                    | 5 minutu  |
| • Arnaguneak zer diren                             | 10 minutu |
| • Taldeka antolatu, dinamika azaldu, fitxak banatu | 2 minutu  |
| • Taldeka panelak ikusi eta fitxa bete             | 8 minutu  |
| • Plenarioan talde bakoitzak egin duena azaldu     | 15 minutu |
| • Hegazkinen jokoak azaldu eta egin                | 10 minutu |

GUZTIRA

50 minutu





### 2.1.3. ARNASGUNEEI BURUZKO HITZALDIA

**ZERBITZUA: EUSKARAREN ARNASGUNEEI BURUZKO HITZALDIA.**

**HARTZAILEA: EUSKARAREKIKO ARDURA DUEN HERRITARRA. HITZALDI BATEN BIDEZ  
INFORMAZIOA JASO ETA BERE GOGOETAK ABERASTEKO ERABILIKO DUENA.**

**HELBURUA: UDALERRI EUSKALDUNEN BILAKAERA LINGUISTIKOA IKUSARAZTEA,  
HORREN FAKTOREAK AZTERTZEA, ETA AURRERA BEGIRAKO JARRERAK LANTZEA.**

**DENBORA: 90 MINUTU.**

#### **EDUKIA ETA METODOLOGIA:**

Hitzaldia UEMAko teknikari batek emango du eta metodologia aldetik hizlari adituaren formatu klasikoa izango du.

Honakoak dira edukien ardatz nagusiak:

- Arnasguneen ideia, ezaugarriak, garrantzitsu izateko arrazoiak...
- Soziolinguistika Klusterrak hizkuntzaren bilakaerari buruz egin-dako ikerketaren ardatz nagusiak: ezagutza, etxeko erabilera, lehen hizkuntza...
- Udalerrri euskaldunetan eragina duten hainbat faktore sozioekonomikori buruz Gaindegiak eginiko ikerketaren ondorio nagusiak: migrazioa, etxebizitza politika, industria izaera...
- Egoera aldatzeko eta arnasguneak legez babesteko eskakizun politiko nagusiak.
- Aurrera begira herritar moduan izan beharreko jarreraren lanketa.

#### **2.1.4. ARNASGUNEEN TAILERRA (saio batekoa)**

**ZERBITZUA: EUSKARAREN ARNASGUNEEL  
BURUZKO TAILERRA.**

**HARTZAILEAK: UDALERRI EUSKALDUNETAKO  
EGOERAK JAKIN-MINA ETA KEZKA SORTZEN DION  
HERRITARRA.**

**HELBURUA: UDALERRI EUSKALDUNETAKO  
EGOERA SOZIOLINGUISTIKOARI ETA  
SOZIOEKONOMIKOARI BURUZ HAUSNARTZEKO  
TARTEA HARTZEA, ETA ATERATAKO ONDORIOEKIN  
AURRERA BEGIRAKO URRATSAK LANTZEA.  
IRAUPENA: 2 ORDU.**



#### **EDUKIA ETA METODOLOGIA:**

Tailer hau ere UEMAKo teknikariek gidatuko dute. Dena den, hemen edukiek adinako garrantzia izango dute parte-hartzaileekin batera egingo diren jarduerak. Izan ere, oinarri-oinarrian hitzaldiko eduki berberak dauden arren, beste modu batera lantzen dira. Hona hemen proposatuko zaizkien jarduera batzuk:

- Eduki teorikoak hitzaldian azaldutakoak dira, modu irekiagoan emanda.
- Arnasguneak: ezertan hasi aurretik, natura nagusi den bideo zati bat ikusiko dugu. Bideoak zer iradoki dien galdetuko zaie eta ondoren, kontzeptua ezaguna egiten ote zaien galdetuko zaie eta ideia jasarako tarte bat utziko da. Ondoren, arnasmuneen definizio orokorra eta datu esanguratsuak azalduko zaizkie.
- Datuen hipotesiak asmatzen: euskararen ezagutzari, etxeko erabilerari eta lehen hizkuntzari dagozkion datuak eman aurretik, eurek bilakaeraren aurreikuspen bat egin beharko dute. Horretarako, 1991 datuak emango zaizkie eta binaka eurek hipotesiak egin beharko dituzte euren usteetatik abiatuz. Ondoren, benetako datuak emango zaizkie eta emaitzen arteko aldeak aztertuko dira. Ariketa honekin partaideak hausnarketa indibidualean jartzen dira, hasieran beren aurreiritziak azaleratzen dituzte eta, gero, errealitatearekin kontrastatzen dira ariketa dinamiko baten bidez.
- Datu orokorretatik herriko pertzepzioetara: Indukzio ariketa bat da honakoa eta Gaindegiaren ikerketa sozioekonomikoak emandako datu orokorrak jakitetik abiatzen da. Ondoren, partaideak lau multzotan jarriko dira (mugikortasuna, migrazioa, hirigintza eta ekonomia-jarduerak), eta alor bakoitzari dagozkion pertzepzioak jaso beharko dituzte: azken 10 urteetan eraikitako etxebizitzek hizkuntzan eragin ote duten, mugikortasuna hazteak nola aldatu dituen gure harreman pertsonalak, eta abar. Fitxa bakoitzean ondorio bat sintetizatzen saiatu beharko dute, eta gero lau ondorioekin poster edo kartel bat egingo da.
- ELE tresna eta neurri zuzentzaileak: Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko erabiltzen den tresna aurkeztuko zaie partaideei eta nola funtzionatzen duen azalduko zaie modu arin batean.
- Hausnarketa eta gogoetarako tarte hartuko da, bakoitzaren iritzietatik abiatuta, baina aldi berean aurrera begirako ikuspegi kolektiboa lantzeko asmotan. Egoeraz jabetzea, harrotasunez bizitzea eta erantzukizunez jokatzeko bezalako balioak transmitituko dira naturaltasun aktiboaren bidez.



### **2.1.5. ARNASGUNEEN TAILERRA (BI SAIO)**

**ZERBITZUA: EUSKARAREN ARNASGUNEEN BURUZKO TAILERRA.**

**HARTZAILEAK: UDALERRI EUSKALDUNETAKO EUSKARAREN EGOERAZ JABETU NAHI DUEN HERRITARRA, NORBERE HERRIKO BEHARREI MODU AKTIBO ETA KOLEKTIBOAN AURRE EGITEKO PRESTUTASUNA AGERTZEN DUENA. ORO HAR, EUSKALTZALEAK BILTZEN DITUZTEN ELKARTE ETA TALDEETAKO KIDEAK.**

**HELBURUA: UDALERRI EUSKALDUNETAKO EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA ETA SOZIOEKONOMIKOA OINARRI HARTUTA, NORBERE UDALERRIKO DIAGNOSIA EGITEA (TALDEAREN ARABERA OROKORRA EDO ZEHATZA IZAN DAITEKE, GURASOEI DAGOKIENA, ESATERAKO). HORREN ONDOREN, EKINTZA PLAN BATEN BIDEZ JARRERAK AKTIBATZEA ERE BADA ASMOA.**

**IRAUPENA: 4 ORDU, BI SAIOTAN BANATUTA.**

#### **Edukia eta metodologia:**

Tailerra UEMAKo teknikariek emango dute eta bi orduko tailerrean bezala edukiak jardueren bidez lantzeari garrantzia emango zaio, informazio jariora ez dadin izan norabide bakarrekoa. Tailer honen mami nagusia honakoa da:

- Bi orduko tailerrean azaldutako eduki eta jarduerak, denbora aldetik moldatuta.
- Herriko egoeraren diagnostikoa egiteko ariketa: parte hartzaileek euren bizipenetik eta ezagutzatik abiatuta, inguruan topatzen dituzten zailtasun eta gabezia nagusiak identifikatuko dituzte eta, horrekin, euskaldunen eguneroko bizitzan dauden hutsuneen diagnostikoa egingo dute.
- Aurrera begirako pausoak: tailerrean bildutako kideek erabakiko dute lehentasunezko urratsak non eman behar diren eta aukeratutako eremu horietan zer egin daitekeen. Horretarako ibilbide orri bat markatzen da eta ekintza-plana zehaztuta eman beharreko aurrerapausoak zehazten dira.

**2.1.6. MOTIBAZIO TAILERRA**  
ZERBITZUA: **MOTIBAZIO TAILERRA.**  
HARTZAILEAK: **ERDARARAKO JOERA DUTEN HERRITARRAK.**  
HELBURUA: **HIZKUNTZA PRAKTIKEZ HAUSNARTzea, KONTZIENTZIA HARTzea eta ALDAKETARAKO PAUSOA ematea.**  
IRAUPENA: **2 ORDU.**



#### **EDUKIA ETA METODOLOGIA:**

Eduki teorikoak eskainiko badira ere, tailerra, batez ere, praktikoa izango da. Tailerra UEMAko teknikariek gidatuko dute. Hona hemen landuko diren eduki teorikoak:

- Arnasguneen kontzeptua.
- Udalerrri euskaldunetako datuak eta herriko datu soziolinguistikoak.
- Korrante nagusiek duten indarra korrante txikien aurrean.
- Faktore sozioekonomikoek hizkuntzarengan duten eragina .
- Hizkuntza gutxituak vs. hizkuntza indartsuak.
- Ekolinguako edukiak: hizkuntzen balio unibertsala, hiztunen arteko errespetua, demokrazia, hizkuntza aniztasuna, berdintasuna lortzea ez da denak berdin tratatzea.

Ariketa praktikoek, dinamikek, izango dute pisu handiena tailer honetan. Saioa eta gero abiatuko duten bidaia (modu metaforikoak ulertuta) prestatzea eskatuko diegu parte hartzaileei. Motxila prestatu, zein gauza atera eta zein sartu erabaki, nora joan nahi duten pentsatu...

## ARIKETA PRAKTIKOAK:

Honako dinamikak egingo ditugu, besteak beste:

1. Dinamika: bi aukera emango dizkiegu.

A. Bisualizazioa. Parte-hartzaileak begiak itxita jarriko ditugu eta guk testu bat errezipiatuko diegu bisualizatu dezaten. Ondoren, binaka jarrita, bisualizazioan azaldutako ideiak partekatuko ditugu.

B. Argazkiak jarriko ditugu erdian. Bakoitzak argazki bat hartuko du eta argazkiaren bidez burura etorritako ideiak partekatuko ditugu.

Feedbacka: bikoteak azaldutakoa talde handian azalduko dute. Horrela, taldekide bakoitzak euskararekin duen lotura zein den ezagutu ahal izango dugu.

2. Bidaia intimoak. Bakoitza egoera batetik, bizipen batzuetatik datorrela adieraziko diegu, baina egoera hori ez dela estankoa azalduko diegu, bizitzak eraldaketarako aukera eskaintzen digula une oro, hortaz, gure partetik bidaia intimoak egiteko gonbita luzatuko diegu.

Bidaia intimoak dokumentalaren trailerra erakutsiko diegu.

3. Dinamika. Euskaraz ez egiteko egon daitezkeen arrazoiak buruz hausnartzeko eskatuko diegu. Horretarako, hiruna post-it emango dizkiegu, post-it bakoitzean arrazoi bat idatziko dute. Idatzitako hori kartulina batean itsatsiko dute. Bi kartulina izango ditugu, Bi taldetan jarrita, azaldu diren arrazoiak irakurriko dituzte eta bakoitzaren aldatetarako bidea bilatzeko eskatuko diegu.

Feedbacka: bakoitzak bere taldean ateratakoa azalduko du. Gure lana beraien azalpenak aberastea izango da.

4. Termometroaren dinamika. Hainbat egoera planteatuko dizkiegu eta egoera horietan rol jakin bat duten pertsonak. Beraiek rol horiekiko non kokatzen diren esateko eskatuko diegu.

5. Bidaia txartela oparituko diegu eta bakoitzak nora joan nahiko lukeen adieraziko du.

6. Bukaeran saioaren balorazioa egingo dute bertaratutakoek. Aireportuko Duty Free dendatik zein opari hartuko dut eta opari hori nori emango diot?

**2.1.7. HAUR ETA HELDUEN TAILERRA**  
**ZERBITZUA: HAURREN ETA GURASOEN TAILERRA.**  
**HARTZAILEAK: 6 eta 11 URTE BITARTEKO**  
**HAURRAK, eta HAUEN GURASOAK.**  
**HELBURUA: HAURREK eta GURASOEK ELKARRE-**  
**KIN HAUSNARTZEA HIZKUNTZA OHITUREI BURUZ,**  
**ALDAKETAN ERAGITEKO.**  
**IRAUPENA: 2 ORDU.**



**Metodologia:**

Ariketa praktikoak zein teoria partekatuko ditugu. Teoria, batik bat, gurasoentzat azalduko dugu. Horrez gain, bideoak eta abestiak erabiliko ditugu. UEMAko bi teknikarik egingo dituzte dinamizatzaile lanak.

Lehen ordubetea gurasoak eta haurrak bananduta egongo dira bi taldetan. Bigarren zatian, guztiak batera egongo dira.

**Lehen zatia: GURASOAK eta HAURRAK BI TALDETAN BANANDUTA**

Lehen ordubetea gurasoak eta haurrak bananduta egongo dira bi taldetan. Bigarren zatian, guztiak batera egongo dira.

Gurasoekin teorikoa izango da tailerra. Erakusketako edukiak erabilia, honako gaiak landuko ditugu:

- Arnasguneak.
- Herri euskaldunen zein erdaldunen garapen soziolinguistikoa.
- Arnasguneetan hizkuntzaren gorabeherak aztertze gakoak.
- Dagokion herriko datuak eta haien irakurketa.
- Hausnarketa norbere hizkuntz hautuez.

Hurrekin praktikoak izango da tailerra: hiru txokotan banatuko dugu lekua (etxea, parkea/jolastokia eta eskola). Txoko bakoitzari mural bat jarriko diogu, eta hiru taldetan banatuko ditugu umeak.

Gure helburua izango da umeek azaltzea gunen bakoitzean zer hizkuntza entzuten eta erabiltzen duten. Horretarako, gunen bakoitzean ariketa bana egin beharko dute. 20 minutu pasatuko dituzte txoko bakoitzean.

- Etxeko txokoa: zuhaitz genealogikoaren osaketa eta margoketa. Baliabideak emango dizkiegu zuhaitza egiteko (zuhaitzaren irudia, pertsonen marrazkiak...), eta beraiek kokatu eta margotu

egin beharko dituzte. Familiako kide bakoitzak erabiltzen duen hizkuntzaren arabera, kolore batez edo besteaz margotuko dituzte.

- Jolastokiko txokoa: Gurasoak zein haurrak agertuko dira parkeko muralean. Umeek azaldu beharko dute zer komunikazio mota sortzen diren; esate baterako, umeen artekoa, gurasoen artekoa, ume eta gurasoen artekoa. Pentsatu beharko dute zertaz ariko ote diren hizketan, eta zer hizkuntzatan izan daitezkeen elkarrizketak. Horiek ere kolore bidez islatuko dituzte muralean.
- Eskola: Eskolako gune desberdinak egongo dira guk jarritako muralean: ikasgelak, jolastokia, gimnasioa... Azaldu beharko dute zer egiten duten gune bakoitzean, zer pertsonarekin izaten dituzten harremanak, zein diren beraien ekintza gustukoena eskolan... Aurreko bi guneetan bezala, koloreztatu egingo dute murala, hizkuntza erabileraren arabera.
- Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Egiozu euskaraz* abestia entzungo dugu gune guztietako kideek.

### **BIGARREN ZATIA: GURASOAK ETA HAURRAK BATERA**

Gurasoak soziolinguistika tailerrean azalduko kontzeptuen jabe izango dira, eta umeek azaldu egingo dizkiete zer ondorio atera dituzte txokoz txoko egin dituzten ariketetan (20 minutu),

Hizkuntzaren erabileraren podiuma bideoa ikusiko dugu guztiok, eta dinamizatzaileek azalpen labur bat emango dute hizkuntza transmisioaz eta erreferenteen garrantziaz (20 minutu).

Euskararen alde pauso bat aurrera egiteko egin dezaketenaz hausnartzeko eskatu zaie taldeka jarrita. Taldeetan haurrak beraien gurasoekin arriko ditugu.

Bukaeran egoera bat aukeratuta, antzerkitxo bat egiteko eskatuko diegu, beti ere euskararen aldeko pauso bat irudikatuz.

Saioari amaiera emateko, elkarrekin kantu bat abestuko dugu. Tapia eta Leturiaren *Gurasoak euskaraz*.

Guraso bakoitza bere haurrarekin jarri, eta hiru talde egingo ditugu, denak nahastuta. Talde bakoitzak txoko bana hartuko du, eta ume eta helduek adostu beharko dute zer egin daitekeen aurrera begira, euskararen erabilera areagotzeko (20 minutu).

Ondorioen eta aurrera begirako jarraibideen aurkezpena, haur eta helduen eskutik (10 minutu).

Abesti batekin tailerra amaitu (5 minutu).

Bukatzeko, mokadutxoak: haurrak, helduak eta antolatzaileak.

## 2.2. HEZKUNTZA PROIEKTUA

Arnasguneei buruzko hezkuntza proiektuarekin ikasleak hizkuntzen arteko harremanez jabetu eta euskaldun gisa ahaldundu eta aktibatzea da helburua.

Hezkuntza arlo estrategikotzat jotzen da hizkuntza-ren ekologia eta arnasguneen inguruko kontzeptuak barneratu, inertzietatik kontzientziara jauzi egin eta euskal hitzun gisa jarrerak aktibatzeko.


Proiektua estrategikotzat jo da, sentsibilizazio, kontzientziazio eta ahalduntzera bidean transmisioaren katebegiak lotzea ahalbidetuz.



### 2.2.1. HAUR HEZKUNTZA:

Udalak euskaldundu arren udalerririk erdalduntzen ari direla ohartuta, herritarren kontzientzia eta sentsibilizazioa da UEMaren ildo nagusietako bat azken urteotan. Horren baitan, ikasturte honetan UEMako herrietako ikastetxe guztietan ari dira lanean UEMako teknikariak, DBHko eta Batxilergoko ikasleekin, euskararen arnaguneei buruzko hezkuntza proiektuarekin. Ekimen honek duen garrantziaz ohartuta, izan duen erantzuna ikusita, eta batetik eta bestetik heldu diren eskaerei erantzuteko, orain, haur hezkuntzara ere zabalduko du proiektua UEMAK.

Horretarako, elkarlanean aritu da Katxiporreta kooperatibarekin eta Miren Amuriza bertsolari eta irakaslearekin. Euskara bilduma berria abiarazi dute Katxiporretak eta Elkar argitaletxeak, Amurizak idatzitako lau liburuekin. Liburu horien edukia idazteko UEMaren lana eta aholkularitza kontuan izan du Amurizak, eta UEMak unitate didaktikoak prestatu ditu liburu bakoitzaren inguruan, urtariletik aurrera eskoletan lantzen hasteko. Euskara da lau liburuen gaia, baina bakoitzak arlo ezberdin batetik jorratzen du.



### EUSKARA BILDUMA

**IZENBURUA:** PORROTX. HIZKUNTZAREN ARNESA.


**IDAZLEA:** MIREN AMURIZA.

**ARGITARATZAILEAK:** KATXIPORRETA, ELKAR.

**HAUR HEZKUNTZARAKO UNITATE DIDAKTIKOA:** UEMA.

Porrotxen herrian euskaraz bizi eta mintzo dira denak, zahar zein gazteenak. Etxean, eskolan, parkean, frontoian eta abar. Porrotzek ere euskaraz egiten die denei. Hirira joaten denean, ordea, ohartzen da beste ahots eta hizkuntzak ere badirela. Badirela euskara hain ohikoa ez den lekuak ere.

Udalerririk euskaldunen eta euskararen arnaguneen garrantzia nabarmendu nahi du liburu honek. Gida didaktikoarekin, hizkuntza ekologiaren ikuspegia landuko da, balio handiko gune naturalak zaintzea ohikoa den bezala, hizkuntzaren gune naturalak ere zaintzeko beharra erakusteko.



## EUSKARA BILDUMA

izenburua: **Marimotots. Euskara ikasten.**

idazlea: **Miren Amuriza.**

argitaratzaileak: **Katxiporreta, Elkar.**

Haur Hezkuntzarako Unitate Didaktikoa: **UEMA.**

Marimotots Extremaduran jaio zen, eta gazteleraz mintzo zen han. Haurra zenean heldu zen Euskal Herrira, baina bertako hizkuntza ezagutu gabe, ez zituen ulertzen kontu asko, eta arraro sentitzen zen. Astiro-astiro, ordea, euskarazko hitzak ikasten hasi zen, bizikletaz ibiltzen bezala, lagunei jarraika, azkenean egun batean euskaraz amets egitea lortu arte.

Euskalduntzean eta bertako hizkuntza ikasteen zabaltzen den mundu berria erakusten du liburuak.



## EUSKARA BILDUMA

IZENBURUA: **PIRRITX. HIZKUNTZA ZER OTE?**


IDAZLEA: **MIREN AMURIZA.**

ARGITARATZAILEAK: **KATXIPORRETA, ELKAR.**

HAUR HEZKUNTZARAKO UNITATE DIDAKTIKOA: **UEMA.**

Euskaldun petoa ez ezik, euskaldun kontzientea ere bada Pirritx. Euskara munduari begiratzeko leihoa dela dakiena. Bereizten gaituena. "Hizkuntza dira betaurreko ikusezinak, munduari begiratzeko zeuen neurrira eginak". Horren jakitun, hizkuntza zaindu nahi du, altxorra delakoan.

Hizkuntza bakoitzak, bere berezitasunetik, aniztasunari egiten dioen ekarpena lantzen da liburuaren osagarri den unitate didaktikoan.



## EUSKARA BILDUMA

izenburua: **Pupu eta Lore. Ikusi-makusi.**

idazlea: **Miren Amuriza.**

argitaratzaileak: **Kaxiporrreta, Elkar.**

Haur Hezkuntzarako Unitate Didaktikoa: **UEMA.**

Pupu eta Lore haurrak dira, eta euskara dute ama-hizkuntza. Hizkuntzaren doinua jaso zuten txiki-txikitan, erdi lo zeudenean Pirritxen tripan.

Transmisioaren garrantziaz oharazi nahi duen liburua da Euskara bildumako laugarren hau. Unitate didaktikoarekin, txiki-txikitandik etxean euskara entzute eta gurasoengandik euskara jasotzea zein garrantzitsua den ikusaraziko da, azken azterketa soziolinguistikoen arabera erabilerak batez ere helduen artean behera egin duela ohartuta.

### 2.2.2. LEHEN HEZKUNTZA:

UEMAk 2017an zehar garatuko du  
Lehen Hezkuntzarako proposamena.

**Lanean ari gara**



**LAster izango da PREST**



### **2.2.3. DBH3 eta DBH4:**

**ZERBITZUA: IKASLEAK AKTIBATZEKO EGITASMOA.**

**HARTZAILEAK: DBH3ko eta DBH4ko ikasleak, eta irakasleak.**

**HELBURUA: arnaguneen eta hizkuntza ekologiararen kontzeptuak lantzea ikasgelan, bakoitzak hizkuntzaren biziberritzean duen papera ikusarazteko.**

**BITARTEKOAK: 6 jardueraz osaturiko bi unitate didaktiko.**



Sei jardueraz osaturiko bi unitate didaktiko sortu dira maila hauetarako. Jarduerak material didaktiko anitza dute: irakasleen eta ikasleen fitxak, PPTak, fitxa berezituak, ikus-entzunezkoak, mapak, atal osagarriak... eta unitateak garatzeko moduak zehaztuko du jarraipen sistema bera. Jarraipen sistema pertsonalizatua izango da, malgutasuna eskaintzen baita unitateak garatzeko, ikastetxe bakoitzak bere egutegi akademikoaren arabera txertatu dezan egutegian. Batzuk tutoretzetan landuko dute, beste batzuk euskara arloan edota departamentu desberdinetatik ere landu daiteke, zeharlerrotasuna emanaz gaiari, ikasleentzat irakasle erreferenteak aragotuz eta ikastetxearen norabidea markatuz.

UEMAk unitate didaktikoen inguruko formazio saioak eskaintzen dizkie irakasleei eta irakasleak dira jarduerak ikasgelan txertatzeaz arduratzen direnak.

#### **2.2.4. Batxilergoa:**

**ZERBITZUA: IKASLEAK AKTIBATZEKO  
FORMAZIO SAIOAK.**

**HARTZAILEAK: BATXILERGOKO IKASLEAK, eta  
IRAKASLEAK.**

**HELBURUA: arnaguneen eta hizkuntza  
ekologiaren kontzeptuak lantzea  
ikasgelan, bakoitzak hizkuntzaren  
biziberritzean duen papera ikusarazteko.**

**BITARTEKOAK: 90 MINUTUKO BI SAIO,  
TAILER MODUKOAK.**



Batxilergoko ikasleentzat ordu eta erdiko bi saioko tailerrak eskaintzen dira. Kasu honetan UEMAko teknikariak dira ikasgeletan sartzen direnak.

Tailerraren helburu nagusiak hiru puntutan laburbildu daitezke:

1. Ikasleen pertzepzio soziolinguistikoan eragitea. Gazteek euren hizkuntza praktikak eta herriko egoera Euskal Herriko testuinguru orokorrean kokatu behar dituzte. Horrez gain, hizkuntzaren izaera ez dela egonkorra eta bilakae-ra dinamikoa dela ulerraraztea da helburua.
2. Udalerrri euskaldunek euskararen normalizazioan duten funtzio garrantzitsua azpimarratzea eta zeregin horren protagonista bihurtzea. Ikasleek udalerrri euskaldunetako herritarrek daukaten lidergo natural horren kontzientzia hartzea da xedea.
3. Norbere jarrerei buruzko gogoeta egitera bultzatuko dituzten jarduerak egingo dira. Bakoitzaren bizimoduan daude elementuak aztertuz (fami-liakideak, lagunak, testuinguru konkretuak,...) euskal hiztun moduan kontzientzia eta ardura hartzera bideratuko dira ikasleak.

## 2.3. ERAGILEEN LANKETA



**ZERBITZUA:** HERRIKO TALDE ETA ERAGILEEK HIZKUNTZA IRIZPIDEAK ZEHAZTEKO LANKETA.

**HARTZAILEAK:** ORO HAR, HERRIKO TALDE ERAGILEAK, BAINA ARLO JAKIN BATEKO ERAGILEEKIN ERE EGIN DAITEKE LANKETA.

**HELBURUA:** HERRIKO TALDE-ERAGILEEK HIZKUNTZAN ERAGITEKO DUTEN GAITASUNAZ JABETZEA ETA GUZTIEK BATERA HIZKUNTZA IRIZPIDEAK BATERATZEA.

**PROZESUA:** TALDE ERAGILEEKIN BANAN-BANAN EGITEN DEN BILERA ERRONDA, ETA BESTE BI BILERA IREKI, GUZTIEKIN.

### **METODOLOGIA:**

Egitasmoa urtean zehar gauzatuko da eta hainbat fasetan banatuta egongo da. Fase bakoitzean UEMAREN egitekoa zein izango den zehaztuko da hurrengo lerrootan.

Ondorengoak izango dira emango diren pausoak:

#### **1. Herriko eragileekin banan-banako bilera erronda:**

Talde-eragileen zerrendaketa egin ondoren, egitasmoan bitartekari izan daitezkeen horie ibilera egiteko proposamena egingo zaie. Bileren helburua izango da lehen hartu-emana egitea, esku artean dugun egitasmoa aurkeztea eta euskararen erabileraren kezka inguruko lehen feedbacka jasotzea.

Euskarari dagokionean dituzten beharrak identifikatuko dira eta bilera-  
ren bukaeran egitasmoan parte hartzeko eskaintza egingo zaie.

#### **2. Autodiagnosiaren fasea:**

Talde bakoitzari galdetegi bat emango zaio beraiek betetzeko izango dena. Galdetegi honen helburua izango da hizkuntza irizpideen inguruko haus-



narketa egitea. Taldeko funtzionamenduan hizkuntzaren trataera zein den jasoko da galdetegiaren bidez. Egoera ezberdinen aurrean nola jokatzeko duten galdetuko zaie. Gaiari buruzko hausnarketa sustatu nahi da ariketa honen bidez. Beharrak eta gabeziak non identifikatzen dituzten ere jasoko da, baita, oro har, herriko erabileraren inguruan duten pertzeptzioa ere.

### **3. Herriko talde-eragile guztiekin batera bilera:**

Lehen bilera erronda bukatuta, eragile guztiekin batera bilera egingo da. Bileraren helburua izango da elkarte, taldeetako hizkuntza funtzionamenduari buruzko feedbacka jasotzea, praktika onak ezagutzeko eta beharren identifikazioa egitea.

### **4. Konpromisoak adosteko fasea:**

Talde-eragile bakoitzari etxe barruan gaiaren inguruko lanketa egiteko eskatuko zaio eta horretarako laguntza eskainiko zaie.

Honako galderen inguruan hausnartuko da taldeetan:

- Taldean sumatzen ditugun gabeziak gainditzeko zer egin dezakegu? Zer da gure esku dagoena?
- Zer da guk egin dezakeguna, oro har, herriko euskararen erabileran aurrera egiteko?
- Ditugun beharrei erantzuteko zein laguntza behar dugu?

Banakako hartu-emanak egingo dira talde-eragileekin.

### **5. Talde-eragileekin bigarren bilera:**

Bileraren helburua izango da gutxieneko hizkuntza irizpide bateratuak adostea, elkarlanean ekintza batzuk egiteko konpromisoa hartzea eta elkarlanerako bitartekoak adostea.

### **6. Eragile guztiek elkarrekin ekimena kalean**

Proiektzio publikoa izango duen ekimen bat antolatzea elkarrekin. Euskararen Eguna antolatzea izan daiteke aukera bat.

### **EGITASMOAREN JARRAIPENA:**

Egitasmoari jarraipena egiteko batzorde edota talde eragile bat osatuko da. Honako pertsonen osatua egongo da gutxiarik taldea: UEMAKO teknikaria, udaleko zinegotzia eta egitasmoaren gidaritza eramango duen pertsona edota enpresako langilea. Horiez gain, interesgarria izan liteke talde eragileetako ordezkari bat egotea ere.

### **3. UDALERRIAREN Zaintzari BEGIRAKO ZERBITZUAK:**

Udalerri euskaldunak bizirik eta euskaldun izaten jarraitzeko politikak martxan jartzea beharrezkoa da.

Zentzu horretan, UEMA prebentzioaren ikuspuntua txertatzeko eta euskara zeharlerrotasunean lantzeko saiakera berezia egiten ari da azken urteotan. Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa da bitarteko sonatuenetakoa, baina badira gehiago ere.

## 3.1. ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA



### **EGITASMOA:**

egitasmo batek (hirigintza plana, plan partziala, kutur egitasmo bat, turismo plan batek...) herriko errealitate linguistikoan izan ditzakeen balizko eraginak aurreikusi, identifikatu eta ebaluatu asmoz, ELE tresna (eragin linguistikoaren ebaluazioa) aplikatzea.

### **HELBURU NAGUSIA:**

Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaren helburua da eremu jakin bateko egitasmoek bertako errealitate linguistikoan izan ditzaketen balizko eraginak aurreikustea, identifikatzea eta ebaluatzea. Halako jarduera batek euskararen hizkuntza-komunitateari kalterik eragin diezaikeela aurreikusiz gero, kalte hori murrizteko edo aurrea hartzeko proposamenak edo neurri zuzentzaileak zehazten dira ebaluazio-prozesuan.

### **NORK EGITEN DU EBALUAZIO LANA?**

Hirigintza plan orokorren kasuan hizkuntza aholkularitza kontratatuko da txostena egiteko, baina egitasmo txikiagoen kasuan UEMAko teknikaria arduratuko da lana egiteaz.

Dena dela, ebaluazio prozesuan zehar garrantzitsua izango da ebaluazio lantaldearen egitekoa. Ebaluazio lantaldea disziplina anitzeko pertsonen osatua egongo da: hizkuntza teknikariak, udal ordezkariak, gaiaren araberrako adituak (arkitektoa, kutur teknikaria, turismo teknikaria...). Lantalde honen egitekoa ebaluazio bileretara joatea izango da eta aurretiaz egindako lanaren inguruko iritzia ematea. Guztira hiruzpalau bilera izaten dira.

Unean-unean kanpaina berezituak egiten ditu zerbitzuak euskaraz ere izan daitezen eskatzeko. Adibidez, UEMAko herrietan egingo diren ordezkapenetan mediku euskaldunak kontrata ditzatela eskatzeko lanketa egiten du udan.

# HARREMANETARAKO

## KONTAKTUAK:

Goizane Arana:  
arnasguneak@uema.eus  
943 816699

Eneritz Albizu  
ealbizu@uema.eus  
943 816699

Maddi Gallastegi (hezkuntza)  
hezkuntza@uema.eus  
943 816699

## SARE BIDEAK:

- Webgunea: uema.eus
- Twitter: @UEMA\_eus
- Facebook: UEMAeuskaraz
- Youtube: UEMAeuskaraz
- Issuu: uema\_eus

## uema:

Donibane enparantza 1, 1a  
48380 AULESTI  
Bizkaia  
94 6279195

Enparan kalea 1, 2a  
20730 AZPEITIA  
Gipuzkoa  
943 816699

Aialde kalea, 2  
20180 OIARTZUN  
Gipuzkoa  
943 260372



*urkatuz gara!*

**URTARRILA**

Al	Ar	Az	Og	Os	Lr	Ig
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					



**uema.eus**



**Donibane enparantza 1, 1a**  
**48380 AULESTI**  
**Bizkaia**  
**94 6279195**

**Aialde kalea, 2**  
**20180 OIARTZUN**  
**Gipuzkoa**  
**943 260372**

**Enparan kalea 1, 2a**  
**20730 AZPEITIA**  
**Gipuzkoa**  
**943 816699**